

BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

Mendiko kirolak eta Eskalada Erdi-mailako 2. maila – Eskalada

Iraupen-proba

1.- **Probaren deskribapena:** lurzoru-mota desberdinetako mendi-ibilbidea egin beharko da, 10 kilogramoko motxila bizkarrean eta epaimahaiak zehaztutako denboran. Ibilbideak 1.500 metroko desnibel positibo metatua izango du.

2.- **Hautagaiak proba egiteko ekarri beharreko materiala:**

- Arropa egokia, dagokion eguraldiari aurre egiteko.
- Oinetako aproposak: trekkingeko botak edo mendiko oinetakoak.
- Motxila. Gutxienez 10 kiloko pisua eta hautagaiaren ekipamendua eramateko modukoa.
- Edaria eta janaria (10 kilo en barruan ez daude edaria eta janaria).
- Nortasun-agiria.

3.- **Balorazio-irizpideak eta zehaztasunak:** Proba gaituztat joko da hautagaiak ibilbidea epaimahaiak zehaztutako denboran egiten badu.

4.- **Hautagaiarentzako gomendioak eta jarraibideak:** Unean-unean, 10 kilokoa izan beharko da motxilaren pisua.

7a zailtasun-mailako haitz-eskalada

1.- **Probaren deskribapena:** 7a zailtasun-mailako eta, gutxienez, 25 metroko luzerako ibilbidea egin beharko da, bistaz.

2.- **Hautagaiak proba egiteko ekarri beharreko materiala:**

- Eskalatzeko arropa egokia, dagokion eguraldiari aurre egiteko.
- Oinetako aproposak: katu-oinak.
- Motxila. Materiala gorde ahal izateko modukoa.

- Eskalatzeko kasko homologatua.
- Eskaladako arnesa.
- 14 espres-zinta.
- Edaria eta janaria.

3.- **Balorazio-irizpideak eta zehaztasunak:** Proba gaindituztat joko da hautagaiak ibilbidea bistaz eta epaimahaiak zehaztutako denboran egiten badu.

4.- **Hautagaiarentzako gomendioak eta jarraibideak:** Probak 7a zailtasun-mailako bi ibilbide izango ditu, eta hautagaiak bietako bat burutu beharko du proba gainditzeko.

Ohiko eskalada-proba (6b hornitu gabea)

1.- **Probaren deskribapena:** 6b hornitu gabea zailtasun-mailako eta, gutxienez, 25 metroko luzerako ibilbidea egin beharko da, bistaz eta norbera babesteko materiala erabilita.

2.- **Hautagaiak proba egiteko ekarri beharreko materiala:**

- Eskalatzeko arropa egokia, dagokion eguraldiari aurre egiteko.
- Oinetako aproposak: katu-oinak.
- Motxila. Materiala gorde ahal izateko modukoa.
- Eskalatzeko kasko homologatua.
- Eskaladako arnesa.
- 14 espres-zinta.
- Edaria eta janaria.
- 60 metroko soka bikoitz ($\frac{1}{2}$) dinamikoa (ez bikia)
- Soka bikoitza ziurtatzeko gailua.
- 3 segurtasun-mosketoi (gutxienez, HMS bat).
- 14 espres-zinta.
- Zenbait kordel eta zinta.
- Arteka-trabagailuak (zenbait sorta). Arteka-trabagailu hedagarri sorta bat ere bai (friend-ak eta microfriend-ak).

3.- **Balorazio-irizpideak eta zehaztasunak:** Proba gaindituztat joko da

hautagaiak ibilbidea bistaz eta epaimahaiak zehaztutako denboran egiten badu. Horrez gain, egoki hautatu eta erabili beharko du material tekniko berezitua, eta dagokion kantitatean.

4.- Hautagaiarentzako gomendioak eta jarraibideak: Lehenengo saiakeran erortzen bada, hautagaiak lurrera jaisteko eta bide bera errepikatzeko aukera izango du, baina kronometroa ez da geldituko: geratzen zaion denbora baliatu beharko du.

Ibilbidea ez da horniturik egongo; hortaz, hautagaiak bere materiala erabili beharko du, bai aseguruetarako bai aurrera egiteko osagaiak.

Eskalada artifizial proba

1.- Probaren deskribapena: A2 zailtasun-mailako eta, gutxienez, 25 metroko luzerako ibilbidea egin beharko da, eskalada artifizialean.

2.- Hautagaiak proba egiteko ekarri beharreko materiala:

- Eskalatzeko arropa egokia, dagokion eguraldiari aurre egiteko.
- Oinetako aproposak: katu-oinak.
- Motxila. Materiala gorde ahal izateko modukoa.
- Eskalatzeko kasko homologatua.
- Eskaladako arnesa.
- Soka bikoitza segurtatzeko gailua.
- 3 segurtasun-mosketoi (gutxienez, HMS bat).
- 14 espres-zinta.
- Zenbait kordel eta zinta.
- Arteka-trabagailuak (zenbait sorta).
- Arteka-trabagailu hedagarri sorta bat (friend-ak).
- Kako-sorta bat.
- Artifizialean aurrera egiteko materiala (ointokiak, daysi-ak edo antzekoak).
- Edaria eta janaria.

3.- Balorazio-irizpideak eta zehaztasunak: Proba gainditutzat joko da hautagaiak ibilbidea epaimahaiak zehaztutako denboran egiten badu. Horrez gain, egoki hautatu eta erabili beharko du material tekniko berezitua, eta dagokion kantitatean.

4.- Hautagaiarentzako gomendioak eta jarraibideak: Hautagaiak aseguru guztiak probatu beharko ditu ointokietara igo aurretik. Egiaztatzean aseguru bat askatuz gero, ez da erorketatzat joko. Ointokietara igota dagoela aseguru bat askatuz gero, erorketatzat joko da. Erorketek azken emaitza baldintzatuko dute. Ibilbidea ez da horniturik egongo; hortaz, hautagaiak bere materiala erabili beharko du, bai aseguruetarako bai aurrera egiteko osagaiak.

Amaierako ebaluazioa: “Gai/ez gai” notak baino ez dira emango sarrera-probetan. Hautagaiak proben atal guztiak gainditu beharko dituzte “gai” izateko.